-A nivel general, no podemos obviar que vivimos un contexto socioeconómico duro y complejo. Los EREs, de suspensión o de extinción, son una realidad muy extendida en el sector. Y en este contexto, la patronal pretende seguir manteniendo sus privilegios y beneficios. En opinión de ELA, hay que responder con ganas, fuerza e ilusión, y lo estamos haciendo.

Por otra parte, ELA-Metala llega a este congreso reforzada a nivel interno. Hemos crecido en representación -en la CAPV estamos por encima del 41%, y del 24,40% en Navarra- y en afiliación.

**¿Cuál es la principal preocupación de la federación hoy?**

-El reto ahora mismo es mantener el empleo, las plantas existentes, y garantizar su futuro; por lo que se refiere a la negociación colectiva, tratamos de seguir dando pasos adelante, pero nos encontramos con una patronal que, en muchos casos, está planteando pérdida de derechos. Muchas empresas que en los últimos años han tenido enormes beneficios, algunas de las cuales incluso siguen estando en beneficios a día de hoy, pretenden aprovecharse de la situación para hacer un trabajo estratégico cara a la salida de la crisis. Quieren el menor número de plantilla posible, reducir costos al máximo, y cuando vuelvan a necesitar gente tirar de eventuales y ETTs; pretenden extender aún más la precariedad para engordar sus cuentas de resultados actuales y futuras.

**¿Qué balance hacéis de la negociación colectiva del último cuatrienio en el sector?**

-Habría que distinguir dos periodos diferentes. Por un lado, los primeros 3 años, en los que las empresas han obtenido beneficios importantes y en los que también, aunque no en la medida que hubiésemos querido, se han dado saltos positivos: en muchas empresas hemos sido capaces de articular una negociación colectiva dinámica, con resultados y experiencias interesantes. Y por otro, un segundo periodo, el del último año, que en algunos casos nos sitúa más a la defensiva y al que, en otros, estamos respondiendo bien y dándole la vuelta.

**Erakarri behar ditugu langileak ELAren proiektura, eta oinarrizko antolakundeak partaidetza-gune eta eztabaida-gune bihurtu**

**¿Cómo está respondiendo la militancia en las empresas?**

-Hay que resaltar el gran trabajo que está haciendo nuestra militancia, precisamente porque no podemos obviar que toda crisis genera miedo en la gente. Miedo a perder el trabajo, a perder un salario que permita afrontar la hipoteca... a vivir, en definitiva. El arma de la patronal es el miedo, y la utiliza, pero nosotros tenemos que ser capaces de explicar y convencer a la clase trabajadora de que el miedo se vence con compromisos colectivos y lucha.

En ese sentido, en un primer momento la llegada de la crisis nos pilla por sorpresa, cuesta reaccionar, pero en los últimos meses asistimos a una conflictividad creciente; la gente está respondiendo bien a esas empresas que pretenden aprovecharse de la situación.

A esas empresas nosotros les respondemos que mucha de nuestra gente lleva en crisis muchos años, incluso en tiempos de bonanza. Un 30% de la clase trabajadora vasca y navarra tiene contrato eventual, y miles y miles son mileuristas en un sector que ha batido récords de beneficios. Las conquistas logradas en los últimos años no han sido regalos de la patronal sino resulta-

do de la movilización, y la respuesta a la situación actual debe seguir siendo la movilización.

**-El lema del congreso habla precisamente de éso, de pelear por lo nuestro...**

-Así es. Y hay que destacar que estamos consiguiendo que muchas empresas den marcha atrás en su intención de aprobar Expedientes de Extinción. Estamos impidiendo despidos a base de movilización. Es el caso de Zardoya-Otis; en Timkem llevan 5 meses de huelga... Hay muchos ejemplos de luchas. En este sentido, desde aquí queremos enviar un mensaje de ánimo a toda la gente que está peleando en su centro de trabajo y decirles que no cedan, que su lucha es imprescindible.

**-Mirando al futuro, ¿qué líneas marca la ponencia en materia de negociación colectiva?**

-Se resume en dos palabras: organización y lucha. Como ya hemos comentado, hay muchas empresas en situación de crisis, pero otras no lo están; por tanto, analizaremos caso por caso y haremos planteamientos y propuestas muy acordes con cada realidad. ELA no va a dar ningún cheque en blanco a la patronal.

Por lo que se refiere a los contenidos concretos, estando el IPC como está y con los niveles de desempleo en los que nos movemos, la reducción de jornada vuelve a cobrar una especial relevancia en el sector.

Por otra parte, la crisis ha puesto en evidencia la enorme bolsa de trabajo eventual existente, trabajadores/as que han sido los primeros en irse a la calle; son el eslabón más débil de la cadena y, por ello, nuestro reto seguirá siendo el de consolidar plantillas, el paso de trabajadores eventuales a indefinidos, ya que son el colectivo más desprotegido del mercado laboral.

**- ¿Qué novedades plantea la ponencia que se someterá a debate y votación?**

-La ponencia no dice nada nuevo, más bien incide en cosas a las que otorga actualidad. La ponencia habla del colapso del sistema neoliberal y de la necesidad de un nuevo modelo. Se subraya que los principios socialistas marcados en el congreso de Euba, a la salida de la clandestinidad, están más vigentes que nunca.

**Federazioaren erronkak dira enplegu-mailari eustea, dauden plantak iraunaraztea, eta negoziazio kolektiboan aurrerapausoak ematea**



## “Borrokaz geurean tinko”

**Metalaren 8. Kongresurako hautatu den goiburua esanguratsua da oso.**

“Ezin dugu ahaztu krisiek beldurra eragiten dutela jendearengan. Lana galtzeko beldurra, hipoteka ordaintzen duen soldata galtzeko beldurra, azken batean, bizi izateko beldurra. Patronalaren tresna beldurra da, eta horretaz baliatzen da sarri-askotan; baina guk azaldu behar diogu langile-jendeari, gure jendeari, beldurra gainditzeko modukoa dela, konpromiso kolektiboak hartu eta borroka egiten bada” azaldu dute Unai Martinezek eta Itziar Larrazabalek.

Borroka hori irabazi nahi bada, militanteak funtsezkoak dira; horregatik, dei egiten diete sektoreko delegatuei, kongresu-aurreko eztabaidan zuzenean parte har dezaten. “Garrantzizkoa da bat etortzea Federazioaren ildo estrategikoeekin, enpresetan eta kalean aldarrikatu beharko ditugu-eta” iragarri dute.

Organizativamente, un año después de la puesta en marcha del plan Lanera tenemos que seguir profundizando en la organización en las empresas, en mejorar el funcionamiento de las secciones sindicales, en incrementar el número de militantes y su participación. La gente que no participa, que no se involucra, no se moviliza.

**-¿Qué retos se marca ELA-Metala para los próximos 4 años?**

-A nivel interno tenemos que seguir creciendo en afiliación y en representación. Tenemos una mayoría importante, pero nada es suficiente ante los retos que tenemos planteados. Además, estamos en puertas de un nuevo periodo concentrado de elecciones sindicales en el que nuestra apuesta es seguir incrementando nuestra representatividad.

**Enpresak, irabaziak egin arren, egoeraz baliatzen dira; krisialditik lan-kostuak murrizturik ateratzeko**

Otros retos a nivel interno son profundizar el trabajo de las secciones sindicales, implicar a los trabajadores/as en el proyecto de ELA, y que las organizaciones de base sean órganos reales de participación y debate.

Por lo que se refiere a la negociación colectiva, vamos a seguir estando muy cerca de los colectivos más discriminados. Los problemas de la gente más desfavorecida: eventuales, mujeres y emigrantes se abordan en las empresas, sin renunciar a las mejoras sectoriales. El de los ámbitos de negociación es un debate superado en la práctica diaria. Los ámbitos de negociación no son el debate; el debate es los contenidos. Y ELA no renuncia nada.

**-El metal es uno los sectores más afectados por los Expedientes de Rescisión de Empleo. ELA fue muy crítica con la anterior Administración por la gestión de los EREs. ¿Se ha notado el cambio de gobierno en este aspecto?**

-Para la clase trabajadora es una desgracia que la alternancia no sea alternativa. No se ha notado ningún cambio en la actuación de Trabajo respecto a los EREs, a pesar del cambio de gobierno. Las empresas están cómodas y el porcentaje de aprobación de EREs es altísimo.

Ahora está por ver si Trabajo se atreve a cruzar la única línea que no ha traspasado: si aprueban EREs de extinción sin acuerdo sindical. Evidentemente, de hacerlo nuestra respuesta será contundente.

**-Finalmente, ¿qué esperáis de este VIII Congreso?**

-Sobre todo, el objetivo es que sea un Congreso muy participativo, que la militancia esté muy en sintonía con las líneas estratégicas de la federación cara a los próximos años porque nos va a tocar defenderlas en las empresas y en la calle.

Desde aquí hacemos un llamamiento a los delegados y delegadas de ELA-Metala a participar en los debates y en la ponencia. Entre otras muchas razones porque las cosas que están sucediendo este año son una experiencia importante que nos tiene que servir para aprender; queremos que nuestros delegados/as plasmen sus vivencias en la ponencia.

**ASBJØRN WAHL**, ASESOR DEL SINDICATO NORUEGO DE EMPLEADORES MUNICIPALES Y GENERALES

# “El diálogo social sólo traerá un mayor deterioro del estado de bienestar”

› GORKA QUEVEDO

**El noruego Asbjørn Wahl es uno de los principales referentes para entender la evolución que ha tenido el llamado pacto social.** El mensaje de Asbjørn Wahl es tan simple como claro y radical. “La historia nos enseña que el poder nunca dimite, debe ser derrocado”. En el encuentro mantenido con él le llamé sobremanera la atención que el diálogo social en Hego Euskal Herria encuentre tantas y tan ingentes fuentes de financiación.

## -¿Qué supuso para la clase trabajadora el estado del bienestar?

-El estado del bienestar representó un gran progreso en términos de condiciones de vida y de trabajo, algo sin precedentes en la historia de la humanidad. La salud pública, la esperanza de vida y la seguridad social mejoraron de manera espectacular en un corto periodo de tiempo, a medida que se iba desarrollando el estado del bienestar en el pasado siglo.

En la actual época de hegemonía neoliberal, sin embargo, el estado del bienestar está siendo atacado por potentes fuerzas políticas y económicas. La desregulación de la economía, la privatización y recortes en el presupuesto público, contribuyen a cambiar las relaciones de poder específicas que fueron decisivas para el desarrollo del estado del bienestar. Como consecuencia, su propia existencia es puesta en peligro.

## -¿Qué hizo posible el estado del bienestar?

-Cierta tipo de servicios sociales –salud, educación, protección social...– se desarrollaron en todos los países a medida que se iba desarrollando la economía.

La forma organizativa, calidad y nivel de esos servicios sociales, sin embargo, reflejarán las relaciones de poder en cada una de las sociedades, así como a nivel internacional. Es decir, los servicios públicos accesibles a todo el mundo y

**Botere kontua da kapitalaren eta langileon arteko gatazka**

democráticamente gestionados, en oposición a los mercados de servicios privados con ánimo de lucro, es una cuestión de poder estructural, de las relaciones de poder económicas, políticas y sociales, así como el resultado de un desarrollo histórico muy específico del siglo XX, incluyendo la revolución rusa.

En resumen: el estado de bienestar no es resultado del diálogo social y de la cooperación tripartita, como afirmarían muchos miembros del movimiento obrero, sino resultado de un largo periodo de duras luchas sociales y enfrentamientos de clase.

## -¿Cómo llegamos a este contexto?

-El capitalismo supuso una fuerte explotación de la clase trabajadora y provocó un extraordinario sufrimiento durante sus periodos de depresión. La respuesta de la clase trabajadora fue organizarse y luchar. Gracias a esta lucha, el movimiento obrero fue logrando, gradualmente, mejores salarios, mejores condiciones de trabajo, así como medidas de bienestar social.

Este periodo estuvo, por lo tanto, fuertemente dominado por los enfrentamientos sociales. Hubo huelgas generales y cierres patronales. A medida que las organizaciones sindicales se desarrollaban y se hacían más fuertes fueron ganando gradualmente terreno en la lucha social. Una gran parte del movimiento obrero se volvió hacia el socialismo como medio para acabar con la explotación capitalista.

Es importante observar que la fuerza de los obreros no sólo contribuyó a mejorar los derechos de los sindicatos y a regular los mercados de trabajo. Lo más importante fue el dominio general de las fuerzas de mercado. A través de una fuerte expansión del sector público y el estado de bienestar, una gran parte de la economía fue completamente extraída del mercado y convertida en objeto de decisiones políticas. Esta doma general de las fuerzas del mercado fue un requisito previo para el desarrollo del estado de bienestar, y el exhaustivo marco reglamentario resultante pasó a ser más importante que la legislación laboral para ofrecer mejores condiciones de trabajo.



**Langileak antolatzen eta mobilizatzen badira, gauzak lortu liteke; indarrrik gabeko langileria eta sindikatuekin, jai daukagu. Historiak zera erakusten digu: botereak ez du inoiz dimititzen, boterea bota egin behar da**

**-Es decir, el conflicto entre el capital y la clase trabajadora es un tema de poder.**

-Así es. Una parte importante de la historia del estado del bienestar, así como del equilibrio de poder en la sociedad, es el pacto social o el compromiso interclasista. Fue el equilibrio de poder dentro del marco de este pacto social entre obreros y capital lo que constituyó la base sobre la que se desarrolló el estado de bienestar, mientras que las

condiciones de vida y trabajo, así como las prestaciones sociales, iban mejorando gradualmente.

Esta alianza social entre obreros y capital fue posible gracias a la fuerza real del movimiento obrero y de los sindicatos. Los patronos y sus organizaciones se dieron cuenta de que no podían derrotar a los sindicatos. Tuvieron que reconocerlos como representantes de la clase trabajadora y negociar con ellos.

**-El objetivo de las luchas obreras no fue, por tanto, el estado de bienestar en sí.**

-Así es. El objetivo declarado era el socialismo. Fue por miedo al socialismo, después de la revolución rusa y el reforzamiento y radicalización del movimiento obrero en Europa occidental durante la II Guerra Mundial, por lo que los propietarios del capital aceptaron muchas de las exigencias del movimiento obrero. Firmaron voluntariamente pactos sociales y aceptaron muchas de las demandas sociales y económicas de los obreros a fin de ganar tiempo y enfriar los sentimientos socialistas.

## Langile mugimendua indartsu egon denean, langileen eta kapitalaren arteko lehian indar korrelazioa zegoenean, gure eskubideetan aurrerapausoak egon dira

En cualquier caso, la política del pacto social tuvo como resultado enormes mejoras en las condiciones de vida y trabajo. El movimiento obrero comprendió que se había encontrado una vía hacia una sociedad que aportaba avances sociales y una distribución relativamente justa de la riqueza para la gente corriente sin tener que hacer todos los sacrificios relacionados con la lucha de clases y los enfrentamientos sociales.

Para el movimiento sindical el pacto social representaba, en realidad, la aceptación de la organización capitalista de producción, la propiedad privada de los medios de producción y el derecho de los patronos a liderar el proceso obrero. A cambio de las ventajas en términos de bienestar y condiciones de trabajo, las confederaciones sindicales garantizaban paz industrial y moderación en las negociaciones salariales.

**-Sin embargo, más de medio siglo después afirmas que los capitalistas han triunfado con su estrategia. ¿Por qué?**

-Debido a importantes logros en términos de bienestar, salarios y condiciones de trabajo, la política del pacto social



obtuvo un apoyo masivo de la clase trabajadora, y las partes más radicales y anticapitalistas del movimiento obrero fueron gradualmente marginadas. Unido al concepto dominante de que el capitalismo del libre-mercado estaba derrotado, este desarrollo condujo a la despolitización del movimiento obrero y la burocratización del movimiento sindical.

Por lo tanto, nos enfrentamos a la paradójica situación de que la ideología del estado de bienestar ha socavado la base de poder sobre la que se había desarrollado el propio estado de bienestar.

**-A partir de la década de los 70 la clase trabajadora sufre las consecuencias de una brutal ofensiva neoliberal. ¿Qué consecuencias ha tenido?**

-La mayor parte del sistema utilizado para someter a las fuerzas del mercado y crear las condiciones para el desarrollo del estado de bienestar han sido eliminados. Esta política de desregulación ha conducido al desarrollo de una economía especulativa completamente enloquecida en la que más del 90% de las operaciones económicas internacionales son especulativas. Asimismo, se ha producido una redistribución de la riqueza sin precedentes: del sector público al privado, de los obreros al capital y de los pobres a los ricos. El modelo de redistribución del estado del bienestar ha sido vuelto al revés. El rápido crecimiento del trabajo precario está minando los derechos de clase trabajadora y sindicatos.

**-¿Qué resistencia ha tenido esta ofensiva capitalista?**

-No ha encontrado mucha resistencia. El movimiento obrero no estaba preparado para la nueva situación. Los sindicatos tuvieron dificultades para actuar en las nuevas condiciones socio-económicas debido a que sus políticas y actividades estaban vinculadas, fundamentalmente, a sus experiencias en un periodo de prosperidad económica.

Además, el proceso de despolitización y desradicalización que ha tenido lugar durante la era del pacto social hizo que a los propietarios del capital les resultara más sencillo tratar de resolver la crisis atacando las condiciones de trabajo, los derechos de los trabajadores/as y de los sindicatos, los servicios públicos y los derechos de prestaciones sociales.

**-¿Quién está detrás de este cambio en el equilibrio de poder entre clase trabajadora y capital, a favor de este último?**

-Las grandes empresas multinacionales han estado a la vanguardia de este desarrollo, con una libertad recientemente adquirida del control y la reglamentación democrática.

La globalización no es una consecuencia necesaria de cambios tecnológicos y organizativos, como pretenden algunos, sino resultado de decisiones políticas y estratégicas tomadas a puerta cerrada en las salas de juntas de las empresas multinacionales, en instituciones financieras y por los gobiernos.

El hecho de que el estado del bienestar esté siendo socavado se refleja en que muchas personas verán reducido su acceso a una vivienda digna, sufrirán el deterioro de las condiciones de trabajo y los servicios sanitarios.

Que este proceso continúe o no dependerá del aliento y la fuerza de resistencia social que sea movilizada en defensa de los logros que se obtuvieron con el estado de bienestar y, por consiguiente, en defensa de objetivos políticos y sociales más combativos.

## Borroka soziala ezinbestekoa da ongizate estatua mantentzeko

**-¿Qué lección podemos aprender de esta experiencia?**

-Las demandas de un nuevo compromiso de clase con una esperanza nostálgica de que se restauren la paz social y la mejora gradual de las condiciones sociales de los años 70 no tienen base realista bajo el actual equilibrio de poder. Las fuerzas sociales que desean defender los servicios públicos y ventajas del estado de bienestar tendrán que hacer frente a los ataques de las fuerzas capitalistas con una contraofensiva.

Guste a uno o no, la realidad es que las relaciones sociales están pasando del consenso a la confrontación, y el movimiento obrero debería estar preparado. La estrechez de miras del diálogo social sólo hará que la lucha se diluya y, en consecuencia, que el estado de bienestar siga siendo atacado, deteriorándose hasta su desaparición, incluso.

# “Ekonomia sistema bera dago krisian, bere osotasunean”



› GORKA QUEVEDO

**“Ezinbestekoa da herritarrek jakitea zer ari den gertatzen, agintariek ezkututzen diguten hori ezagutzea.** Jende gehienak ez du gogoko inguruan ikusten duena, bes-telako gizarte bat nahi du, bizitzeko beste modu hobe. Horregatik ahalegin berezia egin behar dugu azaltzeko zerk ekarri gaituen egoera honetara, jendea amorrarazi beharra daukagu bidegabeba den sistema honen aurka borrokatu dezan”. Horrela mintzo da Sevillako Unibertsitateko Ekonomia Aplikatuaren Katedradun Juan Torres Lopez. Helburu hori lortu asmoz Torres Lopezek *Finantza krisia: ulertzeko eta azaltzeko gida* liburua argitaratu berri du. Liburua bere web gunean ere eskuratu liteke, doan. (<http://www.juantorreslopez.com>).

Finantzez gain, ekonomia sistema osoa krisian dagoela nabarmentzen du Torres Lopezek. “Ameriketako Estatu Batuetako hainbat banku eta aseguru-etxek porrot egin zutenean gutxi batzuk egindako gehiegikerien ondorio izan zela esan ziguten. Ondoren herrialde ezberdinetako bankuen porrotak etorri ziren, eta gauza bera esan ziguten. Asko

**JUAN TORRES LOPEZ**, SEVILLAKO UNIBERTSITATEKO EKONOMIA APLIKATUAREN KATEDRADUNA

jota finantzen munduan zebiltzan hainbat bankariren diru-goseak eragindako egoera zela onartu zuten. Denborak argi erakutsi digu hori guztia gezurra zela. Ekonomia sistema osoa dago krisian, ez finantzak bakarrik”.

Egungo egoera jatorriz bidegabeba den sistema baten bilakaeraren ondorio dela nabarmentzen du. “Sistema kapitalistak bidegabekeria jasotzen du bere oinarrian, bizirauteko ezinbestekoa du injustizia sistema horrek. Gutxi batzuen aberastasuna bermatzeko gehiengo zabal baten zapalkuntza eskatzen du kapitalismoak. Finantza krisia lehertu baino lehen egunean 30.000 lagun hiltzen ziren mundu zabalean gosearen ondorioz. Ameriketako Estatu Batuetako bankuek porrot egin aurretik ere kapitalismoak milaka lagun hiltzen zituen egunero ur edangarriaren faltagatik, sendagaia duten gaixotasunengatik, ingurumenari egindako gehiegikeriengatik, gerregatik... Horrelako sistema hilgarria ez al zegoen orduan ere krisian?”.

**El actual sistema económico se ha convertido en un sistema criminal y las autoridades mundiales son cómplices de ello**

**Gobernuen konplizitatea ere salatzen du** Torres Lopezek, gogor. “Gobernuek era guztietako erraztasunak eman dizkiote kapitalari espekulazioaren bidez eta inolako kontrolik gabe milaka eta milaka milioi eurotako irabaziak izan zitzaizkiren. Finantzekin bakarrik ez, elikagaiekin, energiarekin, ingurumenarekin edo etxebizitza bezalako oinarritzko elementuekin espekulatzeko aukera eman diote Gobernuak kapitalari. Honek guztiak ondorio ezin larriagoak ekarri ditu: oinarritzko elikagaien igoerak milioika lagun heriotza eragin du; ingurumenari egindako sarraskiek ere milioika lagun bizi baldintzak kaltetu dituzte... Gobernuak sistema hori sustengatu, bultzatu eta babestu dute. Azken finean, sistema kriminala, gutxi batzuen dirutzak babestu asmoz munduko hamar

biztanletik zortzi miserian mantentzen duena”.

**Esta crisis no sólo es económica, es también una crisis ética y democrática**


**Ekonomiarena soilik ez, etikaren eta demokraziaren krisia ere dela uste du** Sevillako Unibertsitateko katedradunak. “Bankuei dirua sortzeko monopolio pribatua eman zaie eta zorra jasanezina izatea lortu dute. Jakina zen zer ari ziren egiten, baina, aukera izan arren, agintariek ez dute ezer egin hori galarazteko”.

“Ekonomiaren finantzaketa -gainertzen du- ezin da esku pribatuetan egon, ezinbestekoa da ekonomiaren kontrol publikoa. Erabakiak hartzen diren lekuak ilunak dira, herritarren begiradatik aparte. Gobernuak bankuekin eta botere ekonomikoekin isilpean biltzen dira, gure bizkarretik. Ez dute bertan adostutakoaren berri ematen, informazio hori ezkutatu egiten digute. Erabakiak, gero eta gehiago, inolako zilegitasun demokratikorik ez duten lekuetan hartzen dira, herritarren kontrolatik aparte. Horregatik diot ez dela soilik ekonomiaren krisia, demokrazia bera ere auzitan dago”.

**Aldaketa sakonak.** Torres Lopezek argi du irtenbidea ez dela egungo sistemari adabaki batzuk jartzea, sakoneko aldaketak eskatzen ditu. “Gizarte proiektu berria behar dugu, egun dagoena errotik aldatuko duena. Gobernuak eta banku zentralak ez dute inolako sinesgarritasunik. Ikusi dugu zer egin duten gure diruarekin. Euren helburua ez da izan ekonomia salbatzea, bankuak diruz bete eta euren balantzeak orekatzeko baizik. Ez du ez hanka ez buru egoera larri honetara eraman gaituztenen proposamenak onartzen eta balekotzat hartzen. Arazoa sortu duten horiek orain diote konponbidea dutela. Bada, gezurra da, euren asmo bakarra da orain arteko sistema bidegabearekin jarraitzea”.

» Ingurugiroari buruzko orrialde hau Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurugiro sailaren lankidetzaz argitaratzen da.

## INGURUGIROA MEDIO AMBIENTE



ZAPATEROREN GOBERNUAK GAROÑAREN JARDUERA BESTE LAU URTEZ LUZATZEA ERABAKI DU, 2013 ARTE

# Hamaika arrazoi Garoña martxan ez jarraitzeko



» AINHARA PLAZAOLA

**Garoñako zentral nuklearraren gaia ez da berria, baina azken hilabeteetan protagonismoa berreskuratu du.** Azkenaldian

energia nuklearraren inguruan hausnarketa ugari egin dira, eta kontrako jarrera izateko arrazoiak baditugu. Landearen aurreko hainbat aletan aipatu genuen bezala, energia nuklearra ez da segurua, garestia eta zikina da, klima aldaketa areagotzen du, menpekotasun energetikoa izanarazten digu, baina batez ere, ez da beharrezkoa. Garoñaren kasuan gainera, zentrala zaharra da eta egoera txarrean dago. Azkenaldian akatsen ondoriozko geldialdiak izan ditu eta jarduera luzatzeko beharrezkoak zituen berrikuntzak ez ziren martxan jarri; laburbilduz, egituraren eta segurtasunaren arazo larriak ditu.

**Hay muchísimas razones para exigir el cierre de la central nuclear de Garoña**

Hau horrela izanik, ELAk zentrala ixteko eskatu zuen, helburu hau zuten foroetan eta mobilizazioetan parte hartuz.

**Pasadan uztailaren 5ean Garoñaren azken kontzesio eguna zen** eta Espainiar Gobernuak erabakia hartu behar zuen: zentrala itxi edo jardueraren luzapena onartu. Gobernuak Segurtasun Nuklearrerako Kontseiluaren txostenean oinarrituz zentralak funtzionatzen jarraitu dezakeela erabaki du, beti ere, aurreko txosten batean eskatu ziren hobekuntzak aurrera eramanez.

Kontseilua politikoei aukeratutako teknikoek osatzen dute, jarrera politiko nabaria dute. Horregatik txostenaren sinesgarritasuna eta profesionaltasuna zalantzarik da. Txostena loteslea litzateke erabakia negatiboa den kasuetan bakarrik, beraz oraingoan espainiar gobernuak bi auke-

ra zituen: pertsonen eta ingurugiroaren alde egin edo zentralaren nagusiek dirua irabazten jarraitzearen alde egin. Azken finean, erabaki politiko baten aurrean geunden.

Energia enpresek eta beraien inguruko komunikabideek ere presio handia egin dute prozesu osoan zehar zentralaren bizitza luzatzeko, jarduera honekin lortzen dituzten irabazkiak asko dira eta.

Azkenean, badirudi presio guzti hauek arrakasta izan zutela, izan ere, uztailaren 3an azken erabakia ezagutu genuen: Garoñaren jarduera beste lau urtez luzatuko da, 2013 arte.

Erabakia ezagutu bezain laster ELAk bere ondorioak jakinarazi zituen. Argi geratu da Zapaterok ez duela Garoña ixteko asmorik oraingoan ere. Eredu ekonomikoa ere argi geratu da, ez dauka zerikusirik teoriak eguneroko praktika-rekin. Eta, gainera, ez da batere sinesgarria. Posible da 2013an beste gobernu bat agintean egotea eta orain hartutako erabakia ez da zertan errespetatu behar. Hala ere, eta etorkizunari begira, Espainian eta energia nuklearrarekiko egon daitekeen eztabaidari begira, etsigarria da.

**Auzi honetan, botere politikoak men egin dio interes ekonomikoari,** jarduera luzatzeko erabakiak Endesa eta Iberdrola egiten baititu irabazle; zentral nuklear kutsatzaile eta arriskutsu baten iraupenak, herritar gehienak eta ingurumena bihurtzen ditu galtzaile. Erabaki hau zuritzeko lanpostuen aitzakia erabili da, baina jakin bazekiten -eta aspalditik- 2009ko uztailaren 5a iritsiko zela eta, aldiz, ardura dutenek ez dute ezer egin tokiko garapena bultzatzeko. Erakundeen axolagabekeria ezin da zentral nuklearra justifikatzeko erabili.

Kasu honetan ere ez da herritarren borondatea errespetatu. Hainbat lekutan egin diren mobilizazioetan herritarrek aho batez Garoñako zentrala ixtea exijitu dute.

Nahiz eta Garoñako kasuan Espainiar gobernuaren borondatea argi erakusten den, orain inoiz baino gehiago, energia nuklearra alde batera utzi eta energia berriztagarrien aldeko apustua exijitu beharra daukagu. Bide honek aldaketa klimatikoaren aurka borrokatzen lagunduko digu, oraingo energia sistema baino modu merkeagoan gainera. Nuklearren aldekoek ezinezkoa dela esan arren, posible da kontsumitzen dugun elektrizitate guztia energia berriztagarrietatik lortzea. Beraz, ez dago aitzakiarik inongo zentral nuklearren jarraipena proposatzeko.

# “Langileen batasuna eta berdintasuna aldarrikatu beharra dago”

**AGUSTIN UNZURRUNZAGA,** SOS ARRAZAKERIA  
ELKARTEKO KIDEA

## › GORKA QUEVEDO

### **Etorkinena da, emakumeekin eta gazteekin batera, ekonomiaren krisiaren ondorioak gehien sufritzen ari den sektorea.** SOS

Arrazakeria elkarteak Gipuzkoako inmigrazio arduradun Agustín Unzurrunzagak egungo egoera ekonomikoak inmigranteengan izan ditzakeen ondorio larrietaz ohartarazten du. “Ezin dugu ahaztu kasu askotan gure gizartearen sektorerik ahulena direla, babes eta eskubide gutxien dituztenak”.

### **-Krisia gogor astintzen ari da gurean. Etorkinak ere ez daude egoera honetarik aparte.**

-Bai, hala da. Datuak erreparatu besterik ez dago hori horrela dela jabetzeko. Langabeziari dagokionez, langabetuen portzentajea askoz handiagoa da, ia bertakoen tasaren bikoitza. Espainiar herritartasuna dutenen artean ia %16koa da langabezia tasa; etorkinen artean, berriz, kopurua ia %28koa da. Egoera denboran luzatzen den neurrian aldea handitzen joango da. Esaterako, azken hiru hilabeteetan %2,72 handitu da langabezia; langile inmigranteen artean, portzentajea %7,13 da.

Espainiako Instituto Nacional de Estadistikak etorkinen lan egoeraren inguruko lehen inkesta serioa aurkeztu zuen 2007an. Dagoeneko egungo krisiaren lehen zantzuak nabaritzen hasiak ginen, nahiz eta egoera bera ez izan.

## **Es imprescindible exigir igualdad de derechos y trato en todo lo que tenga que ver con las medidas contra el paro y la precariedad laboral**

Inkesta horrek jasotzen zuenez, gizonen artean etorkinen %41ak erakuntzan edo erakuntzari lotutako sektoreetan egiten zuen lan. Hain zuzen ere, erakuntza izan da krisiaren ondorioak gehien nabaritu duen sektoreetakoak. Emakumeen artean, berriz, %89k zerbitzuei lotutako arloetan egiten zuen lan.

Jakina da sektore hauek berez oso prekarioak direla, lan baldintza oso kaskarrekin.

### **-Nola eragiten die egoera honek inmigranteei?**

-Krisiak eragin berezia du etorkinengan, euren egoera propio eta bereziagatik. Batetik sare sozial txikiagoa dute. Askok ez dute familiarik edo gizarte sarerik arazoren bat izanez gero. Horregatik askoz gehiago jo behar izaten dute gizarte zerbitzuetara, beharizan handiagoa dutelako.

Bestalde, etorkin askok hilabete bukeran soldataren portzentaje bat bidaltzen dute euren jatorrizko herrialdeetara, bertan gelditu diren senideei laguntzeko. Krisiaren ondorioz arazo gehiago dituzte, eta etxera dirua ezin bidaltzeak kulpa sentsazio handia eragiten die kasu askotan. Psikologikoki ere oso gogorra da hori.

### **-SOS Arrazakeria elkarteak, ELArekin elkarlanean, Ez zaitzateela erresidentzia eta lan baimenik gabe utzi ekimena abiatu du. Zer aldarrikatu nahi da kanpaina honen bidez?**

-Guk lan baldintza prekarioak izan ditzakegu, eta ezinbestekoa da horri aurre egitea, baina ez gaude lan baimen baten menpe hemen bizi ahal izateko. Langile atzerritar ez komunitarioak, ordea, lan baimen bati lotuak daude. Lan baimena berritzeko aukerarik ez badute, egoera irregularrera pasatzen dira zuzenean. Horregatik, besteak beste, ekin genion kanpaina honi.

Lagun askok honakoa pentsatzen dute edo pentsatu dezakete. 'Eta, gurean ekonomiaren egoera txarra bada, zergatik ez dira euren herrialdeetara itzultzen? Agian, hobeto joango zaie'. Ikuspuntu okerra dela uste dut, kontutuan hartuta inmigratioak azken urteetan egin dituen ahaleginak eta gauzak gutxi gora behera nondik joan diren ikusita.

Hemen dagoena asentamendu inmigratioa da, bertan gelditzeko asmoa duena. Bertara etorri dira eta bertan gelditzeko asmoa daukate. Egunerokotasunak argi erakusten du hori. Noski, etorkin guztiek dute buruan euren jatorria eta egunen baten bueltatuko direnaren ideia, baina hemen oso



txikia da inmigratio tenporala edo aldi baterakoa, ia ez dago.

### **-Langileen artean xenofobia eta arrazakeria zabaltzeko beldurrik ba al dago?**

-Beldur hori sentitzen dugu, nahiz eta gaur egun ez gertatu. Azken hilabeteetan Erresuma Batuan, Irlandan edo Txekian gertatutakoa hor dago. Beraz, posible da pentsamendu hori hemen zenbait langileren artean zabaltzea. Langile mugimenduak hori kontutan hartu behar du, eta horri fretoa jartzeko lan egin. Baliteke zenbait lagunek honakoa pentsatzea: 'Langabezia bargaude, eta atzerritar batzuk badaude, horiek joanez gero lanpostu horiek libre geldituko liriteke guretzat'. Noski, uste hori

**La nueva ley trata a los inmigrantes como mano de obra que pueda ser usada según el mercado laboral, no como personas**

guztiz faltsua da, gauzak ez dutelako horrela funtzionatzen. Sindikatuek ardur handia dute eskema faltsu hori langileen artean zabaltzeko ez dadin. Alde horretatik, orain arte lan ona egiten ari da langile mugimenduaren aldetik.

Bereziki alboratu eta baztertu behar-ko lirateke 'lanpostu ingelesak ingelesentzat' bezalako esloganak eta pentsamenduak. Hemen, orain artekoan behintzat, apenas egon da horrelakorik, baina Europako zenbait herrialdetan gisa horretako protestak egon dira. Salbuespen bezala Navaleko kasua egon liteke, baina ondo bideratu dela iruditzen zait, batez ere neurri bat eskatu delako: hitzarmen baten aplikazioa langile guztientzat. Hau da, neurri bateratu bat guztiontzat. Zatitzen eta hitzarmen ezberdinak egiten hastea oso kaltegarria izango litzateke langile guztiontzat.

80. hamarkadako industria-krisian gertatutakoa ondo oroitzen dut. Garai hartan ere makina bat Enplegu Erregulazio Espediente eman ziren, eta oraindik buruan dut Urretxuko Irimon eta Legazpiko Patrizio Etxeberriaren gertatzen zena. Patrizio lana ateratzen zenean hainbat langilek honakoa esaten zuten: 'Zumarragakoak eta Urretxukoak ez etorri Legazpiko langabezia bulegora eta abar...'. Alderantziz gertatzen zenean, gauza bera. CAFeko asanbladatan ere esaten zen 'lanpostuak hemengo langileen semeentzat babestu behar zirela, inor ez zedin kanpotik sartu'. Honekin zera esan nahi dut, horrelako gauzak ere bazeudela langile mugimenduaren baitan duela 30 urte.

#### **-Zer egin dezakegu horrelakorik gurean ez zabaltzeko?**

-Langile etorkina konpetidore bezala ikustea ekidin behar da, bai lanean, bai prestazio sozialak jasotzerako orduan. Oso txarra izango litzateke langile mugimenduarentzat ikuspuntu hori bere baitan txertatuko balitz, guztiok aterako ginateke galtzaile. Sindikatuen sorreratik helburu nagusienetakoa langile guztien batasuna lortu eta euren arteko konpetentzia ekiditea izan zen, argi zegoelako langileak batuta egon behar zutela, parean zegoen arerioa, patronala, oso indartsua zelako.

Langile etorkinak eta etorkinak alor guztietan gure gizartearen parte direla aldarrikatzea oso garrantzitsua da. Eskubideak dituzten pertsonak dira, lan egiten dute, auzoan bizi dira... Banatuta eta zatituta dagoen gizarte, non batzuk eskubideak dituzten eta beste batzuk ez, ez da ona inorentzat. Batasunaren eta berdintasunaren ikuspuntuak aldarrikatzea ezinbestekoa iruditzen zait. Egoera ezberdinak egon arren, langile guztiak eskubide berdinak izan behar dituzte.

#### **-Krisiaren aitzakian etorkinen aurkako neurriak hartzeko ahalegina salatu du SOS Arrazakeria elkarteak. Nola egituratzen da eskubideen murrizketa hori?**



## Tenemos que luchar por la unidad y la igualdad de todos los trabajadores y trabajadoras, sea cual sea su lugar de origen

-Argi dago eskubideen murrizketak datozela. Europaren kasuan oso adierazgarria izan da Lotsaren Zuzentaraua bezala ezagutzen denarekin gertatutakoa. Iragan urteko maiatzean onartutako ekimenak eskubide batzuk argi eta garbi murrizten zituen. Espainiar Estatuan antzeko zerbaitek gertatu da. 2008ko abenduan Gobernuak lege-proiektua onartu eta aurrera atera zuen. Murrizketak ere oso nabarmenak izan ziren.

Espainiaren kasuan agerian gelditzen da etorkina lan merkatuari lotuta dagoen langile soila denaren ideia. Hau da, lan merkatuaren arabera jolastu behar den populazioa. Lan merkatua ondo badoa agian erraztasunak jarriko zaizkie etorkinei sartzeko; bestela, auskalo. Ez da pertsona bat bere osotasunean ikusten, langile eta lan merkatuaren aldaketei lotuta dagoen langilea baizik. Legeak argi uzten du Espainiako Gobernuari soilik etorkin kualifikatuak interesatzen zaizkiola. Ikusten du horiek izango direla etorkizuneko lan merkatuan balio erantsiren bat izango dutenak. Gainontzeko etorkinak ez zaizkie axola.

Indarrean dauden inmigratio planak berrantolatuta eta elementu sozialekin berrindartu behako lirateke.

## ¡QUE NO TE DEJEN SIN PERMISO DE TRABAJO Y RESIDENCIA!

**La clase trabajadora está sufriendo las graves consecuencias de la crisis económica.** Evidentemente, las trabajadoras y trabajadores extracomunitarios también sufren las consecuencias de la actual coyuntura económica. Pero, en su caso, la situación es mucho más grave, pues dependen de un permiso de trabajo que hay que conseguir y renovar.

Durante 2008 aumentó mucho la cantidad de denegaciones de renovaciones de permisos de trabajo, bien por no tener cotizados los períodos mínimos exigidos por la ley, porque el empresario ha notificado a la Seguridad Social que el fin de la relación laboral se debía a una baja voluntaria, o porque después de la rescisión de la relación laboral el trabajador o trabajadora no se ha inscrito en el INEM como demandante de empleo.

Con el objetivo de que ninguna persona se quede sin permiso de trabajo y residencia, SOS Racismo ha comenzado una campaña informativa, en colaboración con ELA. En la campaña se informa de algunas de las medidas necesarias para evitar todo esto:

- Prestar mucha atención a los periodos cotizados.
- No aceptar el motivo "baja voluntaria" cuando el fin de la relación laboral no se ha debido a la dimisión del trabajador o trabajadora.
- Exigir que aparezca la responsabilidad del patrón: fin de contrato, desestimiento del empleador -en empleadas de hogar-, despido, etc.
- Controlar en la Tesorería de la Seguridad Social que aparezca el motivo real y no el que el patrón quiere.
- Al fin de la relación laboral, inscribirse en el INEM como demandante de empleo, así como en Lanbide.

Administrazio ezberdinen planak oso urriak dira gai sozialean, honen inguruan ez dute apenas ezer esaten. Elementu sozialek beti izan behar-ko lukete berebiziko garrantzia; krisi egoeratan edo langile multzo handi batek arazo larriak dituenean, zer esanik ez.

# EZDUGUESKAINIKO “BESTEMASAILA ERE”

› N.I./B.F.

**Krisia bazela aitortu zutenetik urtebetea daramagu.** Krisiaren errudunak sistema neoliberalaren diruzalekeria eta hango eta hemengo gobernuen utzikeria izan dira; gobernuak bide eman baitiote botere ekonomikoari nahi duena egiteko.

Eta langileak errudunak ez badira ere, langileei ordainarazten diete, larrutik ordaindu ere, batzuen gaiztakeriak eta besteen axolagabekeriak.

Behin-behineko langile asko, milaka, ixil-gordean kaleratu dituzte, eta milaka eta milaka daude Enplegu Erregulazio Espedienteen eraginpean. EEE ugari horiek erraz-erraz onartzen dituzte Lan Sailean, sindikatuen oniritzia izan gabe ere.

Gai honetan, beste hainbatetan bezala, ez dago bereizterik eskuindarren eta ustezko ezkertiarren artean. Krisiaren hasieran Gasteizko eta Iruñeko Lan Sailek ziurtatu zuten espedienteak zehaz-mehatz begiratuko zituztela. Baina ikusi dugunez, onartu ez dituzten espedienteak



urriak baino urriagoak dira. Horrela, adostasunik gabeko espedienteak indarka ezartzen zaizkie langileei.

Patronalak jakin badaki Administrazioaren laguntza osoa duela; eta hori dela-eta, seguruago sentitzen da

xantaiak eta ezarpenak egiten.

Enpresa batzuk, irabaziak egin arren, espediente pean daude. Izan ere, zenbaitetan egoeraz baliatzen dira plantilla moldatzeko, kostuak murrizteko eta, krisialditik atera orduko, postu hobean egoteko. Nola ulertzen da, bestela, espediente peko enpresetan lanaldia luzatzea proposatzea negoziazio kolektibok?

**Udazken gorria.** Orain beste etapa baten atalasean gaude. Lehenengo espedienteak erregulazio-koak ziren, baina orain kontratua deuseztatzea dakarten espedienteak ere aurkezten ari dira. Eta ez dirudi ez Gasteizek, ez Iruñak aliatuak aldatzeko gogorik dutenik.

Udazken gorria iragarrita dago. ELAk gogor erantzungo die enplegu-deuseztatze espedientei. Argiroago esateko: Gobernuak eta patronalak aurrez aurre izango gaituzte lanpostuak zaintzeko borrokan. ELAk ez du beste masaila eskainiko, eta ez die utziko gure jendea gurutziltzatzen.